

**1247 – El qué y el cómo: Principios metodológicos y herramientas de trabajo para incluir la mediación en mis clases y exámenes de euskera**  
(Bitartekotza: zer eta nola.  
Oinarri metodologikoak eta lan-tresnak, bitartekotza klaseetan eta azterketetan txertatzeko)

**Informazio orokorra**

Data	2025eko uztailaren 15etik 18ra
Ordutegia	<ul style="list-style-type: none"><li>Saio sinkronoak: uztailaren 15, 16 eta 18an 09:00-14:00 (15 ordu online)</li><li>Offline lan praktikoa: uztailaren 17an (gainerako 5 orduak asinkronoak)</li></ul>
Iraupena	20 ordu
Ikastaro-mota	Online (Moodle + Zoom)
Hizkuntza	<b>Gaztelania</b>
Hartzaileak	Euskaltegi eta autoikaskuntza-zentroetako irakasleak eta arduradun akademikoak. Eta interesaturik dagoen oro, plaza-kopurua bete arte.
Aurrematrikula	2025eko martxoaren 24tik apirilaren 16ra
Matrikularen prezioa	57,31 €

**Irakasleak**



Adolfo Sánchez Cuadrado

Adolfo Sánchez Cuadrado Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua da, *Foreign Language Pedagogy*-n masterra du eta Hizkuntzalaritzan doktorea da. 2019tik Granadako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Orokorra eta Literaturaren Teoria Saileko irakaslea da. Aurretik, ELE eta itzulpengintzako irakasle izan zen Estatu Batuetan (Delawareko Unibertsitatea, 1999-2000), Espainian (Granadako Unibertsitateko Hizkuntza Modernoen Zentroa, 2000-2016) eta Erresuma Batuan (University College London, 2016-2018). Gaur egun, irakasleak prestatzen ditu hainbat erakundetan, eta irakaslea eta tutorea da hizkuntzen irakaskuntzarekin lotutako master-tituluetan. Bere ikerketa-arloak itzulpen pedagogikoa, bitartekotza linguistikoa, hizkuntzen irakaskuntzari aplikatutako hizkuntzalaritza kognitiboa eta atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntza dira.

**Ikastaroaren deskribapena**

Ikastaro hau euskara-eskoletan bitartekotza nola txertatu (bai irakas-, bai ebaluazio-prozesuetan) aztertu nahi duten irakasleei dago zuzenduta, eta komunikazio-modu horrek euskararen irakaskuntzarako dituen aukerak aztertuko dira bertan. Era berean, euskara-eskoletan bitartekotza lantzen hasita dauden irakasleen gaitasun didaktikoetan ere sakondu nahi da. Ikastaroa bitartekotzaren ikas-irakas prozesuetan ardaztuko da, baita ebaluazio formatiboaren prozesuetan ere, eta *EEMB*aren komunikagaitasun-maila guztietan. Azkenik, bitartekotza ebaluazio-prozesu egiaztatzaileetan nola txertatu ere aztertuko da, 2024an C2 maila egiaztatzeko azterketetan txertatu baitu HABEk, eta arreta berezia jarriko da B2-C1 mailetan.

## Helburu orokorra

Ikastaro honetan, euskararen irakaskuntzan bitartekotza nola inplementatu aztertuko da, Europako Kontseiluak *EEMBaren Liburu osagarria* (2020) argitaratu zuenetik hizkuntzen irakaskuntzan egin diren aplikazioetatik abiatuta, baita parte-hartzaileek euskara-eskoletan eta azterketetan bitartekotza-jarduerak garatzeari eta ezartzeari buruz izandako esperientzietatik abiatuta ere.

## Helburu zehatzak

- Bitartekotzak, gaitasun komunikatiboaren esparruan, komunikazio-modu, jarduera, gaitasun eta estrategia gisa duen zeregina identifikatzea, *EEMBaren Liburu osagarriaren* arabera.
- Elkarreragin- eta bitartekotza-jardueretan, esanahiaren negoziatioaren eta ezagutzaren eraikuntzaren arteko desberdintasunak eta aplikazio didaktikoak ezagutzea.
- Irizpide pedagogikoak garatzea eta aplikatzea, bitartekotza-jarduerak metodologikoki baliozkotzeko.
- Euskararen irakaskuntzan bitartekotza kognitibo, testual eta komunikatiboaren aplikazioa aztertzea.
- Bitartekotza ebaluatzeko tresna formatiboak eta egiaztatzaileak aztertzea eta baloratzea.

## Programa

Edukiak	Eskola-ordu kopurua
<b>1. Bitartekotzaren kontzeptua:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Bitartekotza komunikazio-modu gisa.</li><li>○ Esanahiaren negoziatioa eta ezagutzaren eraikuntza.</li><li>○ Bitartekotza jardueren, estrategien eta trebetasunen multzo gisa.</li></ul>	5
<b>2. Bitartekotza-jardueraren ebaluazio-irizpide metodologikoak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Testu-bitartekotzatik haratago: bitartekotza kognitiboa eta komunikatiboa.</li><li>○ Irizpide pedagogikoen garapena, bitartekotza-jarduerak baliozkotzeko.</li><li>○ Bitartekotza-jarduerak balioestea.</li></ul>	5
<b>3. Lan praktikoa (offline):</b> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Proposamen didaktiko bat garatzea.</li></ul>	5
<b>4. Bitartekotza eta ebaluazioa:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Bitartekotzaren ebaluazio formatiboa: ebaluazio-errubrikak.</li><li>○ Bitartekotzaren ebaluazio egiaztatzailea: ebaluazio-jarduerak eta -irizpideak.</li><li>○ <i>Offline</i> lanari buruzko atzeraelikadura.</li></ul>	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>20</b>

## Metodologia

Ikastaroaren metodologia ikasleen parte-hartzean eta lanean oinarritzen da. Tutoreak gidatutako analisi-lanekin batera, parte-hartzaileek azterketa- eta aplikazio-jarduerak egingo dituzte saio sinkronoetan, bai eta offline aplikazio-lan bat ere, tutorearen atzeraelikadura jasoko duena.

## Ebaluazioa

Ebaluazioak bi osagai izango ditu: (1) saio sinkronoen jarraipen ordenatua eta aktiboa (bertaratzea erregistratuz) eta (2) saio asinkronoan *offline* lana egitea (ikastaroko tutoreak ebaluatuta).

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa izango da:

- Irakaslearen ebaluazioan GAI kalifikazioa izatea.
- Gutxienez, % 80ko asistentzia izatea.

## Bibliografia

Brian North et al. (eds.) (2022). *Enriching 21st century language education: The CEFR Companion Volume, examples from practice*. Strasbourg: Council of Europe Publishing.

Consejo de Europa. (2020), *CEFR. Companion Volumen*. Strasbourg: Council of Europe Publishing. (Instituto Cervantes-en 2021eko gaztelaniazko itzulpena). Eskuragarri online: [https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca\\_ele/marco\\_complementario/](https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/marco_complementario/); (HABEren euskarazko itzulpena 2022an). Eskuragarri online: [https://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/argitalpenak/eemb-liburu\\_osagarria](https://www.ikasten.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/argitalpenak/eemb-liburu_osagarria)).

Chiappini, R. y Mansur, E. (2021). *Activities for Mediation. Building bridges in the ELT classroom*. Stuttgart: Delta Publishing.

Dendrinis, B. (ed.). (2024). *Mediation as Negotiation of Meaning, Plurilingualism and Language Education*. Londres: Routledge.

Sánchez Cuadrado, A. (2022) (coord.). *Mediación en el aprendizaje de lenguas. Estrategias y recursos*. Madrid: Anaya.